



# 7/18 Zirkularra

## NAFARROAKO GOLF FEDERAZIOA

Paulino Caballero k., 13 – 2.a. 31002 – Iruña  
Tfnoa.: 948 210 132 - Fax: 948 222 198 – email: fngolf@fnavarragolf.com

## 2018KO NAFARROAKO KIROL JOKOAK

### 2018KO PROBA BALIODUNAK

#### 1.- LEHIAKETA BALIODUNAK NKJETARAKO

Nafarroako Golf Federazioak arautzen ditu Nafarroako Kirol Jokoetako sailkapen finaletarako baliodunak izango diren lehiaketak. Modu berean, baliodunak izango dira laugarren txartel hoberena lortzeko 2018ko Haur, Kimu eta Benjamin kategorietako 2018ko Espainiako Txapelketei begira. Hain zuzen ere, aurtengoak honako hauek izango dira:

Datak:

Apirilak 3: NKJetako 1.a Zuastin  
Apirilak 4: NKJetako 2.a Gorraizen  
Apirilak 21: NKJetako 3.a Gorraizen  
Apirilak 22: NKJetako 4<sup>a</sup> Zuastin

#### 2.- LEHIAKETAKO KATEGORIAK:

Juniorrak

Kadeteak

Haurrak

Kimuak

Benjaminak

Probaren egunean kategoria guztietako jokalariek Handicap Nazionala izan beharko dute.

### **3.- SAILKAPENAK:**

Banakakoa eta Taldekakoa.

Banakako Sailkapenak bost kategorietako 2018ko Nafarroako Kirol Jokoetako txapeldunak eta txapeldun ordeak zehaztuko ditu gizonezkoen eta emakumezkoen lehiaketetan.

Taldekako sailkapenak Haur kategoriako Kluben Arteko 2018ko Hiruko Torneoko Txapelduna erabakiko du.

### **4.- JOKU MODALITATEA ETA PUTUAZIO-SISTEMA:**

Lehiaketa guztiak banakako Stroke Play modalitatean jokatuko dira. Kadete, Haur eta Kimuen kategoriek 18 zulo izango dituzte eta Benjaminenak 9 zulo izanen ditu.

Banakako puntuazio-sistema:

Kategoria bakoitzak bere ranking izango du eta proba bakoitzean lortutako puntuen arabera osatuko da. Hain zuzen ere, ondorengo puntuazioa banatuko da lortutako scratch-en arabera:

- 1. sailkatua: 10 puntu
- 2. sailkatua: 7 puntu
- 3. sailkatua: 5 puntu
- 4. sailkatua: 3 puntu
- 5. sailkatua: 1 puntu

Jokalari bakoitzaren lau emaitza hoberenak kontuan izango dira sailkapen finalari begira. Gauzak horrela, lortutako puntuazioek behin-betiko sailkapena osatuko dute.

Taldekako puntuazio-sistema:

Kategoria eta proba bakoitzean Stroke Play-ko 3 txartel hobereenek puntuatuko dute. Lehenengoak 10 puntu lortuko ditu, bigarrenak 5 puntu eskuratuko ditu eta hirugarrenak 3 puntu irabaziko ditu.

Lehiaketako edozein kategoriako jokalariek ordezkatzeko duen Klubako urte bateko bazkide izaera izan beharko da, gutxienez, “taldekako” modalitateko sailkapenean puntuatzeko.

## **5.-INSKRIPZIO ESKUBIDEAK:**

Nafarroako Golf Kirol Jokoetan parte hartzeagatik:

- 7 euro jokalaria bakoitzarengatik. Bere Klubean behin bakarrik ordainduko beharko da.

## **6.- INSKRIPZIOAK:**

Probaren Klub antolatzaileari bidaliko zaio denbora nahikorekin irteera ordutegiak, joku tartxelak, etab. antolatuak izan ahal izateko. Klub anfitrioiak partaideen zerrenda bidaliko dio Nafarroako Golf Federazioari entitate honek NKGI-ra transmititu dezan proba garatu baino lehen. Arrazoi honengatik, izena emateko epea itxiko da lehiaketa hasi baino **72 ordu** lehenago.

## **7.- SARI BANAKETA:**

Apirilaren 22an Zuasti Golf Klubean 2018ko NKJetako lehiaketaren azken proba amaitu ondoren, sari banaketa ospatuko da.

Gizonezkoen eta emakumezkoen kategorian bakoitzeko txapeldunek eta txapeldunordeek dominak jasoko dituzte. Honetaz gain, talde irabazleak trofeo ibiltaria jasoko du.

## **9.- LEHIAKETA GUZTIEN XEDAPENAK.**

**Caddie-ak eta markatzaileak:** Ez da baimenduko jokalariek Caddie izatea. Klubei markatzaileak erabiltzea eskatuko zaizkie 9 zuloetako jokalarientzat.

**Laguntzaileak eta publikoa:** Laguntzaileak eta publikoa ezingo dira jokolarietatik 50 metro baino gutxiagora hurbildu ezta haiekin hitz egitea ere.

Arau hau ez betetzeak jokalariaren kanporaketaren zigorra izan ahalko du.

**Proba-batzordeak** (lehiaketa bakoitzakoak) edozein zalantza argituko du. Modu berean, Proba-batzordeak (lehiaketa bakoitzakoak) araudi honetan agertzen ez diren kasuak interpretatzeko eskubidea izango du.

Iruñean, 2018ko martxoaren 9an

A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke extending to the right.

Juan I. de Arístegui Berazaluce  
21 urte azpiko Batzordeko Presidentea